

«Normalena nire bizitza 2018an itzaltzea izango zen; zorionekoa naiz»

Min du bizka- rrezu- rrean Jokin Lizea- gak. Ikusten ez diren minak ere bai buruan. Albo kalte de- zente. Memorian istripu hura gertatu zela gogorazten dio- ten eguneroko egoera arrun- tak bizi ditu, igogailuak erabil- tzen dituenean, adibidez. Argia ikusten hasi da pixkana- ka, eta gaur zortzi jaioterri in- guruko mendietan korrika saio bat egingo du, jendarteari osatu dela esateko. Zulora jau- si zen korrikalaria bueltan de- la esateko. Jomugan, lasterketa bat: Zegama-Aizkorri mendi maratoia. 2018ko apirilaren 7an hautu bat egin zuelako: hiltzen tematu zitekeen, baina bizitzen tematu zen.

Hiru urte pasatu dira zulo hartara jausi zinenetik, dago- eneko. Zer moduz zaude?

Azkar pasatu dira, baina luze ere bai. Une gogor asko pasatu ditut, eta kalteak ere ezin ahazturik ibili naiz, eta nabil. Azaroaz geroztik korrika egite- ko gai naiz, lau bat hilabete bai jarraian dagoeneko, eta horrek konfiantza eman dit berriro dortsala jarri eta amets, erron- ka, obsesio hori bete ahal iza- teko. Izan dira uneak non ez nuen uste gai izango nintze- nik berriro mendian korrika saio bat normaltasunez osa- tzeko, eta orain banaiz. Azken hiru urteetako fase, eperik onenean nagoela esango nuke.

Egin dezagun atzera, 2018ko apirilaren 7 hartara. Zer ger- tatu zen?

Pastores de la Portudera las- terketa korritzen ari nintzen,

JOKIN LIZEAGA MENDI KORRIKALARIA

Asteazkenean hiru urte bete ziren Jokin Lizeaga hil edo biziko egoeran egon zela. Hiltzeko ere prestatu zen, Europako Mendietako mendi lasterketa batean 15 metroko zulo ilun eta estu batean jausita. Zulo beltz hartatik ateratzeko borrokan ari da oraindik.

Andoni Urbistondo

Cabrales inguruan, Asturias- en. Lider nindoan, errenta onarekin, sei edo zazpi minu- tu bai. Halako goi lautada ba- tean, 1.300 bat metrora edo, elurrak dena estaltzen zuen. Bi susto izan nituen, zuloetan jausiz, baina oso behera joan gabe. Lehen erorikoan gerrirai- no hondoratu nintzen, eta bi- garrenean bularreraino. Kon- tuz ibili beharra neukala jabetu nintzen, baina halako batean, pausoa galdu eta 15 bat metroko zuloan jausi nintzen. Erorketa hura itsasoan buka- tuko zela pentsatu nuen une hartan, ez baitzuen etenik. Zauri arin batzuk egin nituen, orkatilan, bizkarrezurrean, sorbalda bat ere bere tokitik atera zitzaidan...

Erreskatatu zintuen suhil- tzaileak erorketa bosgarren solairu batean behera erori izanaren parekoa izan zela esan zizun.

Hala da, bai. Zorte handia izan nuela ere esan zidan, halako zulo batetik norbait bizirik ateratzea lortzen zuten lehen aldia zela.

Han barruan bizi izan zeni- tuenak gordin-gordin konta- tu izan dituzu natural...

Kontatzeko beharra izango da, agian. Zuloan nintzela izanda- ko pentsamendu batzuk aitor- tzea, publiko egiteak ere harri- tuko du norbait, ze korrikalari gehiago ni erori nintzen zulo berera erortzeko nahia sentitu nuen. Herio hartan beste nor- bait erori, eta haren arropare- kin, berotasunarekin errazago iraungo nuela, genuela pen- tsatzera iritsi nintzen. Maka- bro samarra ere bada, jarrera berekoa nire partez, baina ha- lakoak pasatu zitzaizkidan bu-

rutik. Pentsamendu horiekin, eta horien ondorioekin bizi- tzen ikasi beharko dut. Ikasten ari naiz, oroitzapen horiek ez direlako desagertuko.

Hil egingo zinela sinetsi ze- nuen, baina ez zinen hil. Nola kudeatzen da bizipen hori?

Esan liteke baietz. Zulo batean behera jausi, non geratuko nintzen jakin gabe... Eta behin geratuta, gora begiratu, eta ka- fea hartzeko platertxoaren ta- mainako zulo txiki bat baino ez oso goian. Izoztutako elur ura etengabe jausten zen nire gainera, hotza egiten zuen... Kontzientzia galdu ez nuene- an, kolpeengatik, edo odol hustu ez, zauri sakon baten ondorioz, gaitz erdi. Denbora kontua zen han hiltzea, ez bai- tzen erraza norbait ni han jau- si nintzela jabetzea. Onartzen hasi nintzen, bukatu zela, eta tristura une gogorrek bizi izan nituen. Umeekin gogoratu nintzen (Ainhua Jauregi biko- tekideak eta berak hiru seme- alaba dituzte: Lide, Negu eta Intza), aita nola hil zen ez zu- telako jakingo, eta akaso egu- nen batean hilotza bilatuko zutelako.

Kontziente zara fisikoki, bai- na batez ere mentalki, oso ja- rrera tinkoa eduki zenuela zulotik irteten saiatzeko. Bi- zitzen tematu zinela, alegia.

Nik ere hausnartu dut zergatik ez nintzen hasi hormari kolpe- ka, zergatik egokitu zitzaidan halako istripu bat niri, nolatan ez nintzen lehertu, eseri, eta ordu pare batean hipotermiak jota hiltzeko etsipenean jausi. Zorionez borrokatzea erabaki nuen, indarrak gorde, berotu, oihu gutxi egin, esperantzari eutsi, eta ez itzaltzeko laster-

keta batean murgildu buru-bellarri. Erabaki onak hartu nituen berehala, jatea eta gorputza berotzen saiatzea, adibidez. Pixkanaka eskalatze-ari ekin nion, nire oihuak ur burrunbak isilarazten zituelako. Atera nindutenean 31.8 graduko tenperatura zuen nire gorputzak, eta konbultsio antzekoak izan nituela gogoratzen naiz. Muga-mugan atera ninduten.

Helikopteroa, erietxea, senitartekoak berriz ikusi... Zer oroitzapen dituzu?

Hutsune handi bat daukat tarte horretan. Helikopteroaren soinuarekin amestu nuen, helikopteroa artean istripuaren gunera iritsi gabe zela. Suhiltzaileak ikusi bezain pronto mareatzen hasi nintzen, lotzeko esan nien, eta mina kentzeko botikaren bat sartu zidaten. Sorbalda bere lekuan sartzeko piolet bat erabili zutela gogoratu dut, baina ondoren ordu batzuk desagertu egin dira oroitzapenetik. Erietxean Ainhoa emazteari gose nintzela esan niola gogoratzen naiz, sei-zortzi donut edo antzekoak jan nituela kolpetik, eta Euskadi Irratiko dei bat ere erantzun nuela. Akaso zer esaten nuen zehatz jakin gabe, *groggy* nengoelako oraindik... Gogoan dut Eneko Trinche, Javi Dominguez eta beste lagun askorekin sagardotegian tokia gordeta geneukala, afari oparoa egiteko, eta erietxera etorri ziren lagunei txuleta on bat gordezkeko esan nien, azalduko nintzela, ondo nengoela... Bistan da halako *shock* egoera batean nengoela, eta ez nintzela benetako errealitatearen jabe. Berehala oinazeak hasi ziren, eta orduan bai, orduan jabetu nintzen sagardotegi batera buel-



Argazkiak: Gorka RUBIO | FOKU

tatzeko hilabeteak pasatuko zirela.

Erorketaren ondoren, eta haren ondorioz, une txar asko pasatakoa zara.

Bai, asko egon baitira. Erori eta berehala, lesioak, beldurrak,

heriotza gertu, amesgaizto bat. Sei hilabete pasatuta, azaroan edo, lo gutxi egiten nuela jabetu nintzen, ordu pare bat asko jota gauetan. Esna, ordu asko, eta halako batean, autoan gidatzen nindoala, ezkerreko begia itsu geratu zitzaidan,

ez nuen ikusten. Garuneko erresonantzia bat egin bezperan gertatu zitzaidan, gainera. Orkatiletan, sorbaldan eta beste mila oinaze izan ditut, baina bistaren arazoarekin alderatuta, txikikeriak direla esango nuke. Degenerazio bat

jasan nuen nerbio optikoan, %30ekoa edo. Burrunba, zurrunbilo horretan sartuta eman ditut azken bizpahiru urteak, probak han eta hemen, sei hilean behin neurologoa-
rengana bisita, analisiak, anti-gorputzak, erresonantziak... Ez da samurra izan, beldurra sentitzen da. Pixkanaka kirolean eta naturan murgildu naiz, mina sentitu edo ez, motibazioak bilatzen, eta eramaten jakin dudala esango nuke.

Trauma neurologiko hori bizitza osorako izango dela uste duzu, gainera, ezta?

Bai. Korrika egiten dudanean eta bihotz taupaden erritmoa handitu, buruko tenperatura igo, eta ezkerreko bista galtzen dut, lainotu egiten zait. Kosta zait, baina ohitzen hasi naiz dagoeneko. Ez dirudi erremediorik duenik. Erorikoak halako estresa sortu zuen nerbio optikoan, eta bueltarik ez daukan egoera da.

Erorketaren egunaz, uneaz gogoratzen zara, hiru urte geroago?

Bai, bai. Bizitzen ari naizen egoeraren arabera, maiz. Adibidez igogailua erabiltzen dudanean, altura hartzen dudanean, edo etxebizitza bateko pisu garai batera igotzean. Edo zaintza lanean nagoenean ikastetxean (Beasainen ari da, maisu), hirugarren solairuko leiho ondoan, zorura begiratu eta beldurra... Erorketa, altura etortzen zaizkit burura, burujana. Zergatik nagoen bizirik, eta beste. Beldurrak geratu zaizkit iltzatuta. Hilkorra izatea zer zen ez nekien, eta orain badakit banaizela, gerta daitekeela. Igogailuan, ez ote den hautsiko, mendian behera korrika noanean ez ote naizen

«Askotan jaten dut burua, zergatik nagoen bizirik, eta beste. Beldurrak geratu zaizkit iltzatuta. Hilkorra izatea zer zen ez nekien, eta orain badakit banaizela, gerta daitekeela»



eroriko malkar batean... Gorputzak bere memoria izango du, eta behin gertatu bada, berriro zergatik ez den gertatuko pentsatzen du.

Jausi zinen zulora bueltatu zinen.

Bai, urte bereko urrian egon nintzen, jausi eta sei hilabetera, suhiltzaile baten laguntzarekin. Beharra neukan zuloa ikusteko, nolakoa zen, nire barruan murgildu eta hausnartzeko... Zuloa ikusita bizirik ateratzea miraria are handiagoa izan zela sentitu nuen. Zilindro bertikal batean erori nintzela uste nuen, baina ertzetz jositako kareharri zuloa zen, eta nik tibian eta buruan zauri arinak bakarrik jasan nituen. Jausi baino lehenagoko argazki bat bidali zidaten, norbaitek lasterketa berean, bizpahiru kilometro lehenago ateratakoa, eta argazki horretan halako eskertza bat idatzi, eta zuloan bertan utzi nuen, bigarrenez bizitzeko aukera bat eman didalako. Txilibitua eta erlojua ere berreskuratu

nituen, erorketan galdu egin nituelako, eta han utzitako zaborra ere bildu nuen. Hainbat animaliairen burezurrak ere ikusi nituen, eta horrek burujan dezentekoa eragin zidan, baina psikologikoki mesede egin zidan hara jaisteak. Sokarekin eskalatu nuen zuloa, eta bosgarren graduako pasoak zituela jabetu ginen suhiltzailea eta biok. Zenbaitetan soka tenkatzeko eskatu behar izan nio-la gogoan dut, oso seguru sentitzen ez nintzelako. Pentsa ni egon nintzen egoeran, nola demontre igo nintzen zulorantz, sorbalda bat bere lekutik aterata... Kosta egiten zait uler-tzea oraindik zergatik nagoen hemen, baina gauzak horrela dira.

Zure ondoren pasatu zen lehen korrikalariarekin halako pasadizo bitxi bat izan zen nuen.

Bai, ikusi ninduen, zuloan nengoela, eta ez zen geratu, laguntzera. Emaizta lehenetsi zuen, laguntza eman baino lehen. Esan nion ezin dela halakorik egin, berak esan zidan

antolakuntzak jarraitzeko esan ziola... Bakoitzak berea eraman dezala. Beste guztiak geratu egin ziren ni laguntzera, eta ziur nago ni zulo hartatik ateratzen laguntzea garai-penak baino gehiago asebate zituela. Horrelako jendea behar dugu mendian.

Bada bideo bat hor bueltaka, «La Voz de Asturias» kazetak argitaratutakoa, non zulotik ateratzen zaituzten unea ikusten den. Askotan ikusi duzu bideoa?

Tarteka. Une hori gainditua daukadala esango nuke, ez dit sufrimendurik eragiten, ez irudi horiek, ez hango bizipenak partekatzeak. Pozik bizi naizela zuenganatzea bezala.

Ainhua bikotekidea izango zen, noski, zure ezkutua, babes, hiru urte hauetan. Nola eraman duzue gaia?

Ondo esango nuke. Berak ni baino gehiago sufritu duela uste dut. Nik barrutik eraman dut, eta azaltzen ziren arazotxo horiek ondo barneratu di-

tut. Esango nuke berak okerrago eraman duela. Nahi dudana egiten utzi dit, nire mar-txan ibiltzen, eta eskerrak eman behar dizkiot horregatik. Bajan urte eta erdi eman nuen, lanera bueltatzeko komeriekin, gero konfinamendua etorri zen, eta oso elkarrekin egon gara familiako bost kideak.

Ezkondu egin zineten.

Bai, istripua eduki eta 15 egunera. Aztertua eta planifikatua geneukan horrela egitea, istripua gertatu aurretik, baina arrazoi bategatik edo besteagatik, ez genuen egin. Zuloan buelta batzuk eman nizekin, errudun sentitu, babes gabe utziko nituelako emaztea eta seme-alabak, hiltzen banintzen. Asturiasetik bueltan, segituan paperak egin genituen.

Noiz bueltatu zinen lehen aldiz mendira, istripuaren ondoren?

Egun zehatza ez dakit. Besoan oraindik igeltsuarekin nengo-

ela izango zen, eta Onddi mendira, Urnieta eta Hernani banatzen dituen mendia. Orroren batzuk botatakoa naiz han. Egun onekin baino, errazago gogoratzen naiz txarrekin. Zenbaitetan irten ote naizen korrika saio bat egiteko asmoz, 200 metro bakarrik egin eta herrenka, etxera bueltatzea lur jota. Pentsa, bizikletan ere hasi nintzen, horrela minik ez nuelako sentitzen.

Oinaze fisikorik baduzu, oraindik?

Bai, bizkarrezurrean batez ere, eta oin zoletan eta hezur kalkaneoan.

Apirilaren 17an, gaur zortzi, halako lasterketa berezi bat egingo duzu jaioterri inguruko mendietan. Zergatik?

Ba korrikalari sentitu naizelako berriz azaroaz geroztik. Obesio puntu bat eduki dut, berriro dortsala jartzeko, berriro korrikalari sentitzeko, istripuak ezin zidala gogoia, desioa kendu. Herren edo itsu egon, dortsala jantzi nahi nuen, eta


hori gertu ikusita, ba herrian zerbait egitea pentsatu dut. Herritarrek, Euskal Herriak Jokin Lizeaga oraindik mendian korrika ibiltzeko gai dela ikus-tea nahi dut, ze entzuten ditu-zu txutxu-mutxuak, Jokin gaizki dagoela, edo gaizki gera-tu zela, eta hau eta beste... Ha-lakoak gezurtatzeko ere egiten dut. Zer hobe herrian egitea baino. Ez daukat denbora edo marka jakin bat egiteko pre-siorik. Bueltatxo bat eman, in-guruko mendi guztietatik pa-satu, jendeari bere babesa eskertu eta 'bueltatu naiz' esa-teko grina.

Ego puntu bat egon daiteke, bueltatze grina horretan? Eli-teko kirolaria izan zara, Zega-ma-Aizkorriren punta-puntan ibili zara sarri, eta nazioarte-an ere probak irabazitakoa zara.

Baliteke. Arantzatxo bat gera-tu zait. 2018an, zulora jausi aurretik korritutako lasterke-ta guztiak irabazi nituen... Ki-rolari ezaguna izateak sona eman dio istripuari eta ondo-rengo bizipenei. Korrika emandako errendimenduare-kin oso harro nago, eta egin-dakoak ez ditut hobetuko. Hi-ru urte pasatu dira, dagoeneko, eta 42 urte ditut egun. Onartua daukat. Istri-pua eta bere zehar kalteei bu-kaera bat emateko grina da gehien mugiarazi nauena. He-rriari, lagunei, familiari eske-rrak emateko gogo.

Ez zara sare sozialetan ibili zalea, baina zure bizipen hark oihartzun mediatiko handia eduki zuen eta dauka, egun ere. Horretaz jabetzen zara?

Bai. Alpinismoan, mendian, is-tripu asko gertatzen dira, eta hildakoak ere bai, zoritxarrez. Mendi lasterketetan ez hain-



«Azaroaz geroztik korrikalari sentitu naiz berriz. Obsesio puntu bat eduki dut; berriro dortsala jartzeko, korrikalari sentitzeko, istripuak ezin zidala gogoa, desioa kendu. Herren edo itsu egon, dortsala jantzi nahi nuen»



beste, baina nire istripuak, eta bizirik atera izanak badu mor-bo apur bat.

Zegama-Aizkorri mendi ma-ratoian bukatu nahi duzu zu-re bidea; Sancti Spiritun el-kartzen den jaioterriko jendearekin, Aizkorriko er-mitarako pasabide jende-tsuan, Zegamako plazan...

Bai, Zegama berriz korrituko dudala garbi daukat. Mendian korrika ibili banaiz Zegama-Aizkorri maratoiari esker da. Euskal Herriaren nortasuna-ren ispilu da lasterketa hori: zale onak, denak berdin ani-matzen dituztenak, eta hori beste herrietan ez da gerta-tzen. Probako antolatzaileak ere lagunak ditut, eta ahalegi-na egin nahi nuke, ondo sen-tiarazten nau hainbeste jende-ren artean korrika egiteak. Aurten zaila izango da pande-miarekin maratokia antolatzea, ea hurrengo urtean posible den. Bukatzeko helburu xume-arekin egin nahi nuke, marka-rik egiteko presiorik gabe. Ea 2022an posible den.

Jokin Lizeaga 2014ko Zegama-Aizkorriren. Helmugara iritsi zen lehen euskalduna izan zen. Gotzon ARANBURU | FOKU